

Aretxagazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1998ko martxoak 5 • 140. zka.



Emakumearen eguna

Urte osoko borroka

Aratusteetako argazkiak ■ Iritzia: Maria Agirre ■ Kiroiak: Josu Estvez

ALMEN

**SAN FRANTZISKO
XABIER**

SAN VIATOR

UMEZAINZA

Hezibide bailarari hezkuntz egitura kooperatibo aberatsa ematen dion elkartea, gure eskeintza azaldu nahi dugu.

Deba Garaian haur hezkuntzatik unibertsitate mailarainoko eskaintza integrala, propioa eta zabala ematen dakiten zentroak.



Deba Garaian etorkizuna eraikitzen



- zuk eraiki duzun eskola: ikastola.
- guraso, langile eta erakudeen partaidetza.
- etengabeko hobekuntzako konpromezua.
- autonomia: beharrei erantzuteko gaitasun osoa.

MATRIKULA otsailaren 26tik martxoaren 11ra **ZABALIK**

zatoz ezagutzera



Taxirik erabiltzen duzu?



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura
sailak diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

Leire Uribe
(Ikaslea)

Ez, ez daukat ohi-turirik. Oraindik ez dut beharrik izan. Autobusean ibiltzen naiz.

Uste dut taxia asko erabiltzen dela, lanerako esaterako.



Esteban Gorroño
(Jubilatua)

Ez, ez dut erabiltzen. Lehen erabili izan dut, baina kotxea erosi genuenetik autobusean ere ez naiz ibili.



Jesus Akixu
(Langilea)

Lantegian erabiltzen dut, baina hortik aparte ez. Lantegiek asko erabiltzen dute taxia.



Aiora Padilla
(Ikaslea)

Ez. Beharra dutenek erabiliko dute, baina nik ez. Ni autobusean ibiltzen naiz.



eskutitza



Tratu txarrak direla eta...

Emakumeok, betidanik jasan izan ditugu tratu txarrak nahiz eta orain arte komunikabideetan ohiartzun handirik ez izan. Aurtengo Martxoaren 8a aprobetxatu nahi dugu egoera hauetaz gogoeta batzuk egiteko.

Denok gara, gizarte honek genero bakoitzari ematen dion baloreen ondorioa, eta neurri handi baten barneratuta ditugu jarrerak, betebeharrak, sentimentuak adierazteko erak eta abar.

Emakumeak, eskatzen zaizkion jarrerak betetzen ez baditu (ezin duelako edo ez duelako nahi) bere buruan sortzen dira lehen eztabaidak eta borrokak.

Borroka horren mailak oso ezberdinak izaten dira: ez da gauza bera egunero jipoitzen zaituen gizonarengandik alde egitea, edo amatasunari uko konzientea egitea. Txikitatik barneratu diguten ideal faltsu batzuen ondorio zuzenak besterik ez dira.

Tratu txarrak sufritzen dituzten emakumeen egoerara bueltatuz, bakoitzak bere buruari galde diezaiola: Zer nolako laguntasuna dauka emakume batek egoera honi aurre egiteko? Nola ikusten

du bere burua horrelako egoera batetan bizi den emakumeak?

Guzti hau kontutan izanik, emakumeok gure buru eta sentimenduen jabe izateko, oraindik aurrerabide luzea dugula konziente izan behar dugu.

Edozein motatako arazoan aurrean, bakardadea eta etxe barruko ormak ez direla konponbideak, oztupoak baizik. Ditugun arazoei aurre egiteko, ikasi berriak gara: BELDURRA denon artean gainditu behar dugu.

HERRIKO EMAKUME TALDE BAT

Funeraria Arrasatek berriz ere egin du berea

Heriotza guztiak berez tristeak badira ere, beti azaltzen da samina jasangaitzagoa egiten digun zerbait edo norbait. Oraingoan ere FUNERARIA ARRASATE izan da.

Joan zen igandean Bergaran osaba hil ondoren, prepotentziaz jantziriko jaun erdaldun bat azaldu zitzaigun

baserrian. Esperientziak hala erakutsita ordurako prest geneukan eskela, euskaraz jakina. Euskarazko testua erdaraz irakurri zuela konturatu ondoren, mesedez zegoenetan kalera-tzeko eskatu zitzaion, euskaraz. Erantzuna: -Si quieres lo haces tú.- ¿Dudas de mi trabajo?...- Azkenean, etxeko eta kanpokoan aurrean eztabaida ebitatzearen (ez baita inorentzat une goxoa izaten) komunikabidetakoa geure gain hartu genuen (ez baitzen horren erantzule egiten) eta berak kalekoaren ardura hartu zuen. Berriz ere euskara hutsean jartzeko esan zitzaion eta - a mí me vas a decir cómo tengo que hacer mi trabajo - entzun behar izan genuen.

Astelehenean kaleko eskela guztiak ERDARA HUTSEAN zeuden.

Heriotzaren aurrean saminez beterik dagoen familiaren egoera aprobetxatuz FUNERARIA ARRASATEK egin duenak ez dauka izenik. Idatzi beharra geneukan osabak lasai atsedean har dezan.

LOIDI GARITANO ANAI-ARREBAK

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Maria Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre. **Erredakzio eta publizitate arduradunak:** Iratxe Bengoa eta Amaia Gastañaga. **Banatzatzailea:** Itxaso Barbero. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** EguzkiGRAF. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin. **Azala:** Emakunde aldizkaria (1996ko urtarrila)



Deba ibaiaren integrazio planaren helburuetariko bat bi ertzetan pasealekuak egitearena da

Belorrieta auzoan egurrezko zubia

Deba Ibaiaren integrazio planaren helburuetariko bat, bi ertzetan pasealekuak egitearena da.

Ibaiaren ezker eta eskuin aldea elkartu asmoz, Belorrieta auzoan egurrezko zubi bat jarri zen joan den otsailaren 24ean; zubi aurre-prefabrikatua hain zuzen ere.

Herriaren alde horretan joango den zubi bakarra izan arren,

Kirol-Etxera bidea ematen duen beste bat ere badago.

Berrizten eta sortzen ari diren zubi hauekin, ibaiaren herrira gerturatu nahi da, bide batez, jendea bere inguruan pasiatzera gonbidatuz.

Zubiak eta pasealekuak egiteaz gain, aurrera begira, bizitza biologikoa ere berreskuratu nahi da.

Postetxea berrizturik

Otsailaren 23az geroztik postetxea edo correos ohiko lekura aldatu da. Hiru hilabetetako berri-tze lanen ondoren, ofizina guztiz eraberritua aurkitzen da. Lokala eraberritzeaz gain, barne infra-estruktura ere berritu da, modu honetan, zerbitzua informatizatuz eta herritarrentzako zerbitzu ugariagoa eta hobea eskainiz.

Zerbitzu ugari

Aurrerantzean aurrerapen modernoekin gozatu ahal izango dute herritarrek: posta, telegrafo,



Postetxea ohiko lekura aldatu da

fax, telex, gentex, burofax, argentaria, eta kaja postal zerbitzuak eskainiko baititu herriko postetxeak. Esan behar da, postetxeko ordutegia asteleheneetik ostiralera goizeko 8,30etatik 14,30etara dela eta larunbatetan 9etatik ordu batetara bitartekoa.

Loramendi elkarteak lokalez aldatu

Azken hiru urte hauetan Pagaldaixeneko lokalean egon ondoren, lokalez aldatu beharrean izan da Loramendi elkarteak. Aurrerantzean Euskal Txokoko ganbaran jarraituko du, gaur egun euskaltegia dagoen edifizioan.

Loramendi elkarteak Udalarekin Pagaldaixeneko lokala erabiltzeko sinatuta zuen hitzarmenaren epea iazko ekainean bukatu zen, eta bai Udalarentzat eta bai Loramendirentzat oraingo lokalean jarraitzea karga ekonomiko handia zenez, behin behineko lokala Euskal Txokoko ganbaran izango du.

Era berean, esan beharra dago, Aretxagazeta, telebista eta Loramendi elkarteak euskal txokoan bilduko direla uztailetik aurrera.

Jokuteka berriro ere ludotekan

Iaz izan zuen arrakastaren ondoren, ludotekak aurten ere jokuteka antolatu du. Lau urtetik sei urtera bitarteko ludotekako bazkide direnek parte hartu ahal izango dute eta era desberdinetako jokuak izango dituzte bertan. Lau astetan zehar luzatuko den jokutekan, pertsonaia ezkutu bat ere asmatu beharko dute aurten umeei. Horretarako astero-astero emango zaien pista bat izango dute. Beraz, martxoaren 4tik aurrera martxan da jokuteka.

PIENSOS SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Mitarte, 1-Ifnoa: 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

Euskeraren erabilera plana martxan jarri da udaletxean



Karmele Agirregabiria normalizatzaile lanetan diharduen euskaltegi irakaslea

1997ko apirilean euskara batzordeak egindako proposamenaren ondoren, euskeraren erabilera plana martxan jarri zen udaletxean. Hausnarketa sakon baten ondoren, kontutan izanik, batetik Aretxabaletako Udal langile gehienek zegokien hizkuntz eskakizuna lortua zutela eta lortu ez zutenek ere nahiko maila egokia zutela, eta bestetik ia politiko guztien euskeraren ezagupen maila nahiko ona zela, momentu egokia iruditu zitzairen plangintzari ekiteko.

Jadanik martxan dagoen plangintza honen helburua, euskara udalaren lan-hizkuntza izatea da. Ez da euskalduntze prozezu bat, udaletxeko partaideek euskaraz jakin badakite eta. Plangintza

honekin, euskara beraien lanean isladatzen lagunduko zaie; eguneroko lanean, euskara erabiltzen.

Honetaz arduratzen den Karmele Agirregabiriak adierazi duenez, "azken helburua, euskara lan-hizkuntza izatea bada ere, horretara iristeko tarteko helburu mailakatuak ezarri beharra dago eta tarteko helburu horiek lorgarriak izan beharko dute. Euskeraren erabilera hau, pausatua izatea nahi da, eta ez bapatean, metodologia guztia aldatu. Zenbait langile beste batzuekin baino azkarrago ibiliko dira, horregatik, bakoitza bere neurrian arituko da".

Etorkizunean guztia euskaraz

Plangintzaren amaieran, guztia euskaraz egitea helburutzat badago ere, informazioa erdaraz jasotzea

nahi duen edonork, horretarako aukera izango du. Informazioa ez du pertsona berak euskaraz eta erderaz egingo, bestela lan bikoitza izango litzateke eta. Etorkizunean, informazioa erderaz azaltzeko, itzultzaile bat izango da.

Orain arte emandako urratsak eta aurrerantzean egin beharrekoak

Datu bilketa baten ondoren, egoeraren diagnostikoa egin zen, kanpora begira lan produktio handiena dutenei lehentasuna emanez. Kasu honetan, kultura, hirigintza eta kontuhartzailea izan dira.

Bestalde, planaren azalpena egingo zaie inplikatu guztiei, bai langileei baita politikoei ere. "Langileentzat, oso motibagarria da politikoei euskara erabiltzea" gehitu du Karmelek.

Datu bilketa sakonago bat egitea ere planteatu da, atalkako azterketa, banakako galdeketa eta lan jardunen azterketa bat egingez. Hauekin, planaren diseinua egingo da.

Langileen trebakuntza bigarren fase batetan zegoen arren, udaleko partaide batzuek azaltzen duten euskara maila ona dela eta, jada hasi dira beraien trebakuntza saioekin.

Planaren helburua aurrera atera ahal izateko, bai langile eta bai politikoen partaidetza ezinbestekoa da. Adierazi denez, oraingoz erakutsi duten jarrera, oso aproposa izan da.

Egun, Hizkuntz Normalkuntzarako Erabilera Planean diharduten langile kopurua 22 kideakoa da.

Pelikularik hoberenak

**DON
BIDEO**

Lezama Merkatal
zentrua
ARETXABALETA

MIREN

Elunak eta beritasunak

salneurri bereziak

Murubide, 1 ♦ 79 67 97

OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1
79 71 69

MAITE

ileapaindegia

Sarasate, 79 59 05
ARETXABALETA

Aratusteak pasa dira, eta dagoeneko hurrengo jaien zain gaude. Ia hurrengo jaietan ere, ihauterietan bezain giro ona dagoen. Aratuste domeka gero eta indartsuagoa da herrian, jendeak jartzen duen gogoa ikustea besterik ez dago. Euria naiz edurra egin, herria beti dago honelako jaia ospatzeko prest. Jarraian ageri diren argazkietan, gezurretan ez gabiltzala argi azaltzen da.



Kordobes hauekin ez dago txarangaren beharrik herrian! (2.Saria)



Zapatistak. (16 urtetik beherakoetan lehenengo saria)

Sariak:

16 urtetik gorakoetan

1.- Dragoi Txinoa

2.- Kordobesak


3.- Don Kixote eta Santxo Panza

16 urtetik beherakoetan

1.- Zapatistak

2.- Baserritar trogloditak

3.- Hildakoak



Badirudi Txinoaren Hiletaren ohitura aldatuz doala. (3. Saria)



Jainkoa beti Jainko, bera seguruenik ez zen bustiko. (2. saria)

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA



**Dragoi Txinoa.
1. saria**



**Eguna
dexente
argitu
zuten!**



**Perretxikotan aritzen den batek baino
gehiagok botako zien begia!**



**Gonak igotzerako orduan, inoiz baino jende
gehiago gerturatu zen. Zergatik otee?**

**Gaurkoo,
Gaurkoo!!**



Bai ondo dantzaten dela Atxabaltan!

**Lehoi
guztiak
honelakoak
balira,
zirkoak
arrakasta
handiagoa
izango luke!**





Etxe ondoko altxorra

“Uretako hegaztiei dagokienez Urkulu da Gipuzkoako tokirik aberatsena eta Euskal Herriko garrantzitsuenetarikoa”

Bidaian joan zara, bertako paisaia eta herriak ezagutu eta etxera bueltatzean honako ondorioa atera duzu: “ikusitakoa polita izan da, baina beharbada ni bizi naizen ingurua hura bestekoa da”. Ez al zaizue inoiz hori gertatu?

Askotan esan ohi da bertakoa ez dugula behar beste estimatzen, baina hori gerta ez dadin, jendeari erakutsi eta esan egin behar zaio zelako altxorra duen etxetik bi pausotara. Mailua iltzera: Urkuluri buruz ari naiz.

Ingurunea zoragarria izateaz gain, uretako hegaztiei dagokienez Urkulu da Gipuzkoako tokirik aberatsena eta Euskal Herriko garrantzitsuenetarikoa. Are gehiago, urtetik urtera espezie desberdinetako hegaztiak hurbiltzen direla-eta, Europako toki gutxitan aurki daitezkeen hegaztiak izaten dira Urkulun. Aretxabaletako urtegia Ingalaterran balego, egunero 50 lagun aurkituko genituzke teleskopio edo prismatikoekin hegaztiei begira.

Eta nondik nora dakit nik hori? Ez pentsa gai honetan aditua naizenik, baina orain dela gutxi hiru adituren

eta teleskopio baten bidez Urkuluko urtegian zer dabilen ikusi eta ezagutzeko aukera izan, eta izugarritzko aberastasuna dugula deskubritu nuen. Nire ustez, Urkuluri ez diogu duen garrantzia aitortzen eta erakunde publikoek zerbait egin beharko lukete hori ahalbideratzeko. Baita eskolek ere, zeren Afrikan lehoiak daudela jakitea bezain garrantzitsua da inguruan dugunaren berri izatea.

Aipatutakoa eta gehiago helburu du Aranzadi zientzia elkarteak Gipuzkoako Diputaziora aurkeztu duen proiektuak. Urkulu parke ornitologiko bihurtzeko proiektua aurkeztu berri du Aranzadik, eta Diputazioak onartuz gero, hegaztiak ezagutzeko behar bezalako behatokiak ipini eta hegaztiak babesteko neurriak hartuko dira.

Negua bukatzeaz dagoela-eta, hegazti batzuk dagoeneko aldegin dute Urkulutik. Hala ere oraindik asko geratzen dira, eta joandakoak ere berriro itzuliko dira hurrengo neguan. Ea ordurako hobeto ezagutzeko aukera dugun!

MARIA AGIRRE

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETAKO

**ORTOPEDIA
ORTO LAGUN**

Ondo ibili nahi duzu? Zuri laguntzeko gaude!

- Lanerako eskalapoiak.
- Bizkarra zaintzeko faja bereziak.
- Hanketarako plantilla bereziak.

Kontzezino 2 • ARRASATE • Tfnoa: 79 89 34

BITXITEGIA


**MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA**

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

Iñaki Aporta

“Gurasoen papera funtsezkoa da adoleszentzian”

Adoleszentzia ez da inorentzat etapa samurra, ez gazteentzat ezta hauen gurasoentzat ere. Aldaketa fisiko eta fisiologiko garrantzitsuak ematen diren garaia izanik, gaztearengan antsietate handia sortzen da. Adoleszentzia gaitzat hartuta gurasoei zuzendutako hitzaldi zikloak antolatu ziren Kurtzebarri eskolan. Santonako (Cantabria) Iñaki Aporta psikologoa izan zen hizlaria eta guk ere berarekin egoteko aukera aprobetxatu genuen.



- Zeintzuk dira adoleszentzian gaztearengan gertatzen diren aldaketa nabarmenenak, eta zer suposatzen dute?

- Adoleszentzia aldaketa garaia da. Aldaketa fisiologiko garrantzitsuak ematen dira gaztearengan, baita garapen hormonal eta sexuala ere. Guzti honek adoleszentzia krisi garaia izatea dakar eta desoreka eta antsietate handia sortzen dute gaztearengan.

- Gurasoek nola joka dezakete etapa honetan?

- Gurasoen lana funtsezkoa da adoleszentzian, kontutan izan behar da, umearen lehen eskola familia dela. Aldaketa garai honetan gaztea garatuz doa eta gurasoek lagundu egin behar dute.

Gurasoak gaztearengan identitate bat sortzeko ezinbesteko sustarririk dira eta balore egoki batzutan hezi behar da seme-alaba. Balore hauen arabera, hartuko ditu gazteak bere erabakiak, eta adoleszentzia erabaki garrantzitsuak hartu behar diren garaia da.

- Lagunen funtzioa garrantzitsua da etapa honetan?

- Neska-mutilen garapenerako lagun taldea elementu funtsezkoa da, duda barik. Euren sozializazioa eta heldutasuna garatuko duten gunea da eta, beraz, garrantzitsua da lagun onak izatea. Nik beti esaten dut, lagunak izatekotan hobe da lagun onak izatea, txarrak izatekotan

hobe lagunik ez izatea.

- Lagunekin irtetzen hasten direnean, gurasoek beraiekin joan daitezten ere exigitu behar diete?

Bai, noizean behin gurasoekin irtetea ere komeni da. Seme-alabei familia bizitza egitera ere behartu egin behar zaie, gurasoekin aktibitate desberdinak egitera, momentu horietan sortzen baita guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa.

- Gaueko ordutegiaren inguruan arazo ugari sortzen da seme-alaba eta gurasoen artean. Kasu hauetan nola joka daiteke?

- Aretxabaleta moduko herri txiki batean, lagunak gurasoak ezagutu egiten dira normalean. Horrelako kasuetan ondo etortzen da alde zuzenetik gurasoak ados jartzea ordutegiari dagokionez.

- Bukatzeko, bi berbetan zein aholku emango zenieke gurasoei?

- Seme-alaben heziketan formula magikorik ez dago. Gurasoak beren seme-alabekin ahalik eta ondoen pasatzen ahalegindu behar dute, disfrutatzen. Seme-alaben heziketa ez da batere samurra, baina maitasunez jokatzeko bada, nahiz eta hankasartzeak egin, poliki-poliki gauzak ondo egin direla konturatu gara.

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

TABERNA eta JATETXEEN GIDA


Mitarte Garai



Mitartegarai
Jatetxea

Arientza auzoa
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 17 51

Urbaltz taberna



URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

Artano taberna

Herriko
plazan
ARTANO

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 79 62 75

Izotz taberna

Zure gustoko giroa
IZOTZ
TABERNA

Mitarte, 16 • ARETXABALETA
Tfnoa: 79 73 65

Taberna Berri



Taberna Berri
Jatetxea

Durana, 26 • ARETXABALETA
☎ 79 20 67

Zaraia taberna

MANTEKA
ANAIK

Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzura

Araba Ibilbidea, 20 • 79 88 95

Bedarreta taberna

Bedarreta

Beti bezeroen zerbitzura

Otalora, 19 ♦ Tfnoa: 79 20 89

Baster alde jatetxea



Sasoiko
jakiak
giro
onenean

Galartza auzoa
☎ 79 24 58
ARETXABALETA

Basabe jatetxea

Menu eta
afariak

BASABE
jatetxea

Basabe poligonoa • 79 91 84

Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tfnoa: 79 85 57

Dorleta taberna

Dorleta

Beti bezeroen zerbitzura

Loramendi 8 • ARETXABALETA
☎ 79 94 15

Matikua jatetxea

Matikua

Jatetxea eta taberna

Azatza auzoa • 79 16 68

Mendiola erretegia



♦ *Bazkari*
eta afariak

Astelehenetan
itxita

Mendiola auzoa • Eskoriatza

Express akeitegia

Express
akeitegia

Zure gustoko giroa

Santa Kurtz, 16
ARETXABALETA ☎ 79 23 43

Amets taberna

AMETS

Taberna eta kafetegia

Iparragirre, 4 • 79 01 29
Aretxabaleta

Emakumearen eguna

urte osoko borroka

Datorren domekan, emakumearen nazioarteko eguna ospatzen da. Egun hori emakume askok ospatzen dute, eta guztiek era desberdinean. Baina zer ospatzen dugu egun honetan? Urte batzuk pasa ondoren aldarrikapen eta borroka egun hori ez al da ondo pasatzeko egun bilakatu? Galdera hauei erantzuna eman nahi izan diegu gaurkoan eta tartean herriko emakume taldearen iritzia eta beste emakume batzuen lan esperientzia eta iritzia gogora ekarri nahi izan dugu.

Martxoaren 8a ospatzerakoan, emakumearen berdintasuna, justizia, bakea eta garapena lortzeko urte hauetan guztietan burututako borrokaren ohitura hori eguneratu baino ez dugu egiten. Gaur egun, hala ere, badirudi benetako aldarrikapen eguna izatetik ondo pasatzeko eguna izatera pasa dela martxoaren 8a. Baina non dago egun honen jatorria?

JATORRIA: BERTSIO ASKO

Galdera horren erantzunak bat baino gehiago izan arren, espainian ofizialtzat ezaguna dena aipatuko dugu. Mende honen hasieran gertaera ikaragarria gertatu zen Chicagon. Emakume talde batek lan egoera hobetzeko eskaera egin zion nagusiari. Ugazabak, berriz, emakumeon eskariaren aurrean amore eman beharrean, lantegiari su eman zion, barruan protestatzeko itxialdian zeuden emakume denak errez.

Harrezkero, martxoaren 8a emakume langilearen eguna izan da mundu osoan eta munduko emakume askok ospatzen dute egun hau, bakoitzak modu desberdin batean.

HERRIKO EMAKUME TALDEA

Bada gure herrian, orain 20 bat urte, Euskal Herriko feminista mugimendu taldeekin batera sortu zen emakume talde bat. Urtero martxoaren 8an pankarta bat jarri izan dute plazan.

Taldearen sorrerara jotzen badugu, ikastolan biltzen ziren hamabi bat emakumetaz ari gara. Sorreratik hona Arrasateko emakumeen asanbladan ere partaide izan dira eta gaur egun ere, harreman handia mantentzen dute beraiekin. Datorren domekan esaterako emakumearen eguna ospatu asmoz, herriko plazan pankarta jarri ondoren, Arrasateko ekin-tzetan hartuko durte parte, egunari afari batekin bukaera emanez, jakina.

Herriko emakume taldeak urtero martxoaren 8an pankarta jarri izan du plazan

Taldeko zenbait kideren ustez emakumearen egunak zentsua aldatu du eta aldarrikapen egun bat izatetik ondo pasatzeko egun bat izatera iritsi da. Nolanahi ere, "emakumeon eguna egun horretan ospatu arren, urte osoan zehar jorratu beharreko lana da gurea" diote.

Era batera zein bestera ospatu, ospakizun hutsa baino gehiago da beraientzat egun hori. "Emakumearen eskubideei dagokienez, gizonezkoen parean egon gaitezen borroka luzea dago egiteko oraindik", izan ere, XXI. mendearen ateetan gaudenean, oraindik oinarritzko eskaera eta baldintza asko ez baitira betetzen. Sexua ez dadila norbait diskriminatzeke aitzakia izan.



Zer diote?

Tarte honetan herriko emakume batzuen iritzia ezagutu nahi izan dugu. Beraien lan esperientziaren inguruan galdetu diegu, emakumeok gizartean dugun egoeraren iritzia...
Martxoaren 8a ospatzen duten edo ez ere jakin dugu. Horra hor kontatu digutena!

Mari Angeles Idigoras

Baserritarra

Arkarazoko Teresena baserrikoa dugu Mari Angeles Idigoras. Etxeko lanak egiteaz gain, baserrian sortzen diren hainbat lan egin behar izaten ditu: ortua landu, behiak batu, esnea saldu. Baserrian gizonekoentzako eta emakumezkoentzako ez da normalean lana desberdintzen, hala ere, badira kasuak, Mari Angelesekin azaltzen duenez basoko



“Emakumearen egunean bazkari espeziala egiten dut etxean”

lan batzuk esaterako, indar fisikoak mugatzen gaituenak.

Bere ustez oraindik lan asko dago egiteko emakumea gizonaren neurritik hartzeko, “neure etxean ikusi dut hori, semeek askoz samurrago bilatu dute lana eta”.

Martxoaren 8a bazkari espeziala eginez ospatuko du. Bere ustez, San Jose, aitaren eguna, denok ospatzen dugun moduan, emakumearen eguna ere guztiok ospatu beharko genuke.

Ana Mari Zubia

Fagor Ulgorreko langilea

Ulgorreko kalefazioetako kalderen sekzioan lan egiten du Ana Mari Zubiak. 29 urte daramatza lan horretan eta sexu desberdintasunak direla eta ez zuen lana aurkitzeko arazorik izan.

Martxoaren 8a ospatu izan du, iaz esaterako laneko lagunekin afaria egin zuen eta egun honetan antolatzen diren ekintzetan ere parte hartu izan du.

Bere ustez, gizartean berdintasunaren aldeko lan asko dago egiteko oraindik, esaterako, goiko postuetan oso emakume gutxi ari da lanean. “Baina ez dakit horren arrazoia non egon daitekeen”.

Bestalde, mar-



“Oraindik oinarrizko eskubide asko ez dira betetzen”

txoaren 8a guztioi dagokigun eguna dela ere gaineratzen du eta “ez emakumeona bakarrik, gizarte osoarena baino”.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko lan asko dago egiteko oraindik, esaterako, goiko postuetan oso emakume gutxi ari da lanean. “Baina ez dakit horren arrazoia non egon daitekeen”.

Maria Victoria Velez

Etxekoandrea eta jostuna

“Ezkondu nintzetik etxeko lanak eta joskin lanak egin izan ditut” diozku Maria Victoriak. Etxekoandreen lana gutxi baloratua izan den arren, Maria Victoriak ardura handikoa eta lan lotua dela azpimarratzen du era berean. “Seme-alabak hazi, etxeko garbiketak egin, josi, lan handia dela deritzot eta zapatu eta domekak ez dira jai guretzat”.

Emakumearen egoera asko aldatu dela azpimarratzen du azken urteotan, eta hori bere etxean bertan ikusi du. “Nire generaziotik nire seme-alabenera aldaketa handia egon da, gizon-emakumeek denetik egiten dute. Hala



“Gizonezkoak eta emakumezkoak indarrak desberdintzen gaituela pentsatu izan dut beti”

ere, oraindik badugu emakumeok berdintasunaren alde lan egin beharra”.

Emakumearen eguna ospatzeko ez du ohiturarik izan, agian ez dutelako horretan hezi. Hala ere, jostunen eguna ospatzen duela gaineratu digu.

“Benetazko berdintasuna izateko gizartearen aldaketa beharrezkoa da”

Elisabeth Altube

Duela lau urtetik hona Emakundeko abokatua da Elisabeth Altube atxabaltarra. Bere iritziz gizarte honetan berdintasuna lortzea guztion auzia da, bai emakumezko eta bai gizonezkoena.

- Zein da zure lana Emakunden?

- Aholkularitza juridikoa, bai Erakunde barrukoa, eta baita kanpotik eskatzen diguten informazio juridikoa ematea.

Emakundera iristen diren Sexu-diskriminazioei lotutako bide-raketa: lan-harremanetan, publizitatean, eta abar. Euskal Autonomi Erkidegoko araudiaren jarraipena eta dagokienean sexu-berdintasunaren inguruan eta lengoaiaren erabilera ez sexistaren inguruan proposamenak egitea. Erakunde beretik ateratzen diren arauen eta hitzarmenen erredakzioa eta tramitazioa...

- Emakumea izanda, lana bilatzerako orduan izan duzu sexu diskriminaziorik?

- Orain dela urte batzuk ez nuen ezagutzen gai honen inguruan izkutatzen diren hainbat portaera, eta agian horregatik ez nintzen horretaz jabetu, baina orain egon badagoela ziurtatzeko kondizioetan nago, egunero ikusten dudana gauza bat delako.

- Azken urteotan sexu berdintasunaren aldeko borroka gogorra egin da. Zeintzuk dira lortutako lorpen garrantzitsuenak? zeintzuk lortu beharrekoak

- Zaila da neurtzea zenbateraino

aldatu den gizartearen portaera eta mentalizazioa, baina nik uste dut, aurrera pausoak eman direla eta agian gizartearen kontzientzia arlo honetan zabaldu egin da.

Arlo juridikoan, legedia asko aldatu eta moldatu da, baina benetazko arazoak aplikatzeko orduan gertatzen dira, horregatik asko dago egiteko. Egia da, azken urteotan Instituzioak gai honen inguruan lanean ari direla, erakunde bereziak sortuz eta berdintasuna garatzeko politikak martxan jarritz, baina benetazko berdintasuna izateko gizartearen aldaketa beharrezkoa da eta hori pokiki-poliki egiten da.

- Zergatik uste duzu emakume gutxi daudela postu haundiko karguetan?

Gizarte honetan pertsonen jasaten dugun sozializazioak ez du emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna bultzatzen. Honen ondorioz, ematen diren rolen banaketan emakumezkoiei serratzen zaigu etxeko lanen inguruan erantzutea eta gizonezkoiei, berriz, etxetik kanpo egiten diren aktibitateetan erantzutea. Horrela zaila egiten da kontziliazioa, eta benetazko aukera bat izatea gizarte honetan emakumeak edozein arlotan parte hartzeko. Bestetik, esango nuke, sozializazio honen ondorioz ere, emakumeok gure burua ez dugu postu hauetan ikusten, eta bestetik oztopo haundiak ditugu iristeko, gizonezkoiei baino gaitasun haundiago eskatzen zaigulako



edozein toki okupatzeko.

- Martxoaren 8an zer errei-bindikatuko du Emakundek?

- Joan den urtean tratu txarrei buruzkoa izan zen kanpaina, eta orain dela bi urte emakume eta gizonezkoen arteko ardurakidetzari buruzkoa.

Aurten, Europako Parlamentuak, “Kabuleko emakumeentzako lore bat” izeneko kanpainaren bitartez, deialdi bat egin du nazioarteko komunitateari datorren martxoaren 8an emakume afganiarrei elkartzuna adierazteko.

- Zuk zeuk ospatzen duzu egun hau?

- Niretzat martxoaren 8a egunero da, horregatik ez dut ospakizun berezirik egiten.

- Martxoak 8, emakumeei dagokien eguna bakarrik da? edo guztiona?

- Berdintasunaren bidean emakumeok gara aldarrikapen gehiago ditugunak eta horregatik hitz egiten da emakumearen egunaz, baina egia da berdintasuna lortzea guztion auzia dela, gizon eta emakumeena, horregatik egun bateratu bat, helburu bateratu baten alde, izan beharko litzateke.



98ko denboraldia osatuko duten txirrindulariak

Dorletako Ama txirrindulari eskolaren aurkezpena

1998ko denboraldiari hasiera emateko, Dorletako Ama Txirrindulari Eskolak taldearen aurkezpena egin zuen. Partaide guztien izenak jakitera eman ziren joan den otsailaren 21ean.

Dorletako Ama Birginari ofrendak eskeiniz, egun honi hasiera eman zitzaion; hauen artean, loreak, bizikleta gurpilak eta beste makina bat egon zen.

Ondoren, 1. eta 2.urteko jubenilak, kadeteak, 1. eta 2.urteko infantilak eta patrozinatzaileak aurkeztu zituzten. Denboraldi honetako babesleak, Fagor, J.M.A (Alejandro Altuna) eta Arrasate kirolak izango dira.

Jubenilen taldea Fagor-ek babes-tuko du, eta José Galán izango da Kirol zuzendaria. Talde hau 12 txirrindularik osatuko dute.

1. eta 2.urteko kadeteak, 16 izango dira, eta J.M.Ak babestuko ditu. Hauen kirol zuzendariak, Lorenzo Bernal, Rafa Antia eta Javier Lazkano izango dira.

Talde gazteena, hau da infantilena, 9 partaidek osatua, Arrasate Kirolak-ek babestuko du eta Dionisio Merak zuzenduko du.

Guztientzat, Alberto Garai Kirol sendagilea egongo da, eta talde bakoitzeko preparatzaile fisiko bana: Juan Ignacio Errasti, Alex Iturbe eta José Luis Eraña atxabaltarra.

U.D.Akoa futbol taldeak gogor

Denboraldia aurrera doan heinean, U.D.Akoa futbol taldeak postuak hobetuz doaz.

Jubenilak

Jubenilen taldea adibidez, jokatzeko ari den "Liga Vasca" barruan, eguneko egun zerrendako lehenengo postuetara gerturatuz doa. Pasa den domekan, San Viator en aurka jokatu zuten, 2-0 eginez. L. Ingidua eta Calzónnek gol bana sartu zuten. Lortutako garaipen honekin, 2. postuan kokatzen dira.

Preferenteak

Preferenteak ere ez ziren makal ibili, Zestoaren aurka 2-0ko emaitzaz garaipena lortu zuten eta. Azken hauek, poliki-poliki gorantza doaz, azkeneko 5 partiduak irabazi dituzte eta.

Infantilak

Infantilek aste honetako partidua galdu bazuten ere, "liga de honor" era igotzekotan dabilta. Mailaz igotzeko, zortzi taldeetatik lehengo lau postuetan daudenak igoko dira, oraingoz behintzat, beraien postua ziurtaturik daukate.

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta

Izozkitekiki-Gozotegia IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABAleta



Zenbaki

Basabe
Industrialdea
Aretxabaleta

Tfnoak: 79 88 75
79 75 99

Aholkularitza



ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
79 29 26

LEIBAR arraindegia

Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABAleta



MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABAleta

Josu Estevez

“Martxoaren 6an egingo dugu taldearen aurkezpena”

Betidanik txirrindularitzarekin harremanetan egon den gazte hau, gaur egun, Born Jay afizionatu mailako taldearen zuzendaria da.

• Zenbat urte zuzendari lanetan ?

98ko denboraldi honetan zortzigarrena egingo dut. Bost urte Dorletako Ama txirrindulari eskolan ibili ondoren, Born Jay taldean egingo dudana hirugarrena da.

Orain urte batzuk, txirrindularitzan ibili nintzen, eta kirol honekin izandako harremanak bultzatu ninduen zuzendari lanak betetzera. Bestalde, nire lobak ere jarraitza animatu ninduen.

• Born Jay taldea indartsu dago?

Ondo aurkitzen dela uste dut. Garrantzitsuena, gero eta hobeto dabilena da. Jendeak gozoz lan egiten du.


• Gero eta txirrindulari gehiago dago taldean?

Gure kasua, ez da eskolako taldeena bezalakoa. Eskola mailako taldeetan, nahi duenak har dezake parte. Born Jay taldean sartzeko, aldiz, guk aukeratzen ditugu.

Taldea sendotuz doan neurrian, eskatzen dugun maila ere gero eta altuagoa da. Aurtengo denboraldirako, 21 kideko taldeaz irtetzea pentsatu genuen, baina azkenean, 18rekin arituko gara.

• Txirrindulariak nondik hartzen dituzue?

Hasiera baten, Dorletako Ama



taldeko partaideek daukate preferentzia. Aurten Oier Garro atxalbaltarra izan da hartu dugun bakarra.

Honetaz gain, 5 arabarrek, 2 katalanek eta 11 gipuzkoarrek osatzen dute taldea. Bihar, martxoaren 6an egingo dugu aurkezpena.

• Josu, zer behar da taldeak ondo funtzionatzeko?

Gogoia eta dirua beharrezkoak dira. Euskal Herri mailan bakarrik ibili nahi izanez gero, aurrekontu txikiarekin ibil zaitezke. Baina taldea osatuko duen txirrindulari onak aurkitzeko, derrigorrezkoa da kanpora irtetea. Kasu honetan diruak garrantzi handia dauka, eta oraingoz, nahiko pobre gaude.

• Zein satisfakzio ematen dizu zuzendari lanetan ibiltzeak?

Lasterketetan egoten den giroa asko gustatzen zait. Gainera, txi-

rindulari askori irteera emateak ere asko poztzen nau.

Orain arte, talderik gabe gelditutako txirrindulari asko hartu dugu. Eta hauei laguntzeak satisfakzio handia ematen du.

Bestalde, taldea ere indartzuz doa, eta beste talde batzuk nahi dituzten mutilak ere gurekin izatea lortu dugu. Hauek gurekin gelditzeak, aurrera jarraitzen animatzen du.

• Deba Garaian, txirrindularitzarekiko afizio handia dagoela uste duzu?

Ezin gaitezke kexatu! Inguru honetan antolatzen diren lasterketetan bai partaide eta bai ikusle ugari egoten da. Aurreko urtean korritutako Granadako bueltan adibidez, leku batzuetan ez zegoen inor. Hemen, leku batean edo beste batean, beti dago norbait animatzeko prest.

• Zein da Born Jay-ren aurtengo helburua?

Imajin ona izatea oso garrantzitsua da taldearentzat, kanpora irteten dugunean, jendea gurekin gustora geldi dadila. Lasterketak irabaz badaitezke, askoz hobe. Norberak eman dezakeen guztia ematen badu, eta lana egiten dela ikusten bada, gure helburuetariko bat lortuta dago.

• Josu, zer duzu nahiago, zuzendari edo txirrindulari ?

Momentu honetan zuzendari. Zuzendari lanak betebeharrak ugari ditu, baina txirrindularia izatea oso gogorra da.

IRIARTE
Umeen denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 10 96

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 79 01 51
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

Atxabaltako gazte taldeak ekin dio bideari

Herrian, talde berri baten sorreraren aurrean gaudela esan genezake. Ideia hau lehenagotik zetorren arren, azkenean "Atxabaltako Gazte Taldea" izenpean, ilusio eta konpromenezuz beteriko zenbait gazte elkartu dira. Egitasmo asko dakartzate. Honela azarotik otsailera bitartean, jada herriari zuzenduriko bi ekintza burutu dituzte.


Herritarren konpromezua bilatzeko asmoz, A.G.T. (Atxabaltako gazte taldea) atxabaltarrongana zuzendu zen azaroaren 21ean burututako sexualitate kanpainaren bidez. Zergatik zara heterosexuala? Edota zer da sexualitatea zuretzat? Jendearen erantzunak tabernetan ezarritako buzoietan jaso ahal izan ziren. Herritar askok eman zuten euren iritzia eta hala, erantzunak ere modu askotakoak izan ziren: "heterosexuala zergatik naizen? Gizarteak eta gurasoek horretara bideratu nautelako. Gaur egungo egoera hau aldatuz doa, baina oraindik ere estereotipo sexual honek indar handia du. Nik neuk ere, oraindik zalantza handiak dauzkat heterosexualitateaz".

Ekintza arrakastatsuak

Ekintza hau azaroaren 21ean hasitako sexualitate kanpainaren lehenengo osagaia izan zen. Izan ere, egun honetan bertan, Urbaltz elkartearen homosexualitatearen inguruko hitzaldi bat eskaini baitzuten E.H.G.A.M.eko bi lagunek.

Bestalde, otsailaren 27an sexualitate kanpainarekin zerikusirik ez zuen beste gai interesgarri bati helduta, A.G.T.ak beste ekintza bat prestatu zuen. "Itoizko solidario"etariko bi lagunek hitzaldia eskaini zuten eta esan beharra dago, bigarren ekintza hau ere oso arrakastatsua izan zela. Laurogehitik gora lagun bildu baitziren Urbaltzeko elkartearen.

Beraz martxan da Atxabaltako Gazte Taldea. Jadanik aukeratu dute gazte taldea ordezkatzeko duen logotipoa. Hemendik aurrera logotipo hori sarriago ikusteko aukera izango dugulakoan gaude. Izan ere, gazte taldeak datorren martxoaren 8rako (emakumearen eguna) beste ekintza batzuk antolatu baititu. Kalejira, sagardo dastaketa... eta



Atxabaltako Gazte
Taldea *

Gazte taldearen logotipoa

segidan Arrasaten burutuko den manifestaldira joateko aukera ere izango da.

Herritarroi zabalik

Inoiz baino aukera hobea daukagu benetan interesgarriak iruditzen zaizkigun gaietaz enteratzeko, edota Atxabaltako Gazte Taldean parte hartzeko. Taldea sortu berria denez, behin baino gehiagotan eskertuko dute denon parte hartzea. Lehenengo ekintzek harrera ona izan dute jendearengan eta gerora begira, lanean ari dira pil-pilean dauden gaiekin eztabaida sortu asmoz. Animatu zaitetze eta jarrai ezazue gertutik A.G.Tren agenda, gai interesgarriak baitakartzate.

Andoni Arana



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

ERREKABARREN MEREKATAL ZENTRUA

• JUANTXO URDAITEGIA	79 75 42
• MARI KARMEN OINETAKO DENDA	79 59 85
• IRUDI ILEAPAINDEGIA	79 80 90
• MIREIA ARRAINDEGIA	79 31 59
• ARAMAIO OKINDEGIA	79 64 87
• LEINTZ-ROSI	79 78 63
• ERREKABARREN FRUITATEGIA	79 96 43



“El florido pensil” Koruetan

1.971. urtean Koruetako eskolan zebiltzan ikasleek argazkia atera zuten eskola ondoan. Larrinoko auzotarrak ezik beste hiru auzotako neska-mutilak joaten ziren Koruetara ikastera, Azatza, Arientza eta Koruetarrak jakina. Adin desberdinetako neskak eta mutilak denek batera ikasten zuten, Socorro Mayo Saez maistraren eskutik. Hau ez zegoenean abarea Don Bonifacio Arenaza (Don Boni) joaten zitzairen klasea ematera, ez ziren gero ez oso gustokoak honek erregelarekin ematen zituen zartadak. Neska-mutilek elkarrekin ikasi arren, eskulanetan neskek, puntua, gantxiloa... ikasten zuten bitartean, mutilek bestelako lanak egiten zituzten, egurrezko lanak, patatarekin seiloak... Gainera argazkian ondo ikus daitekeen moduan uniformeak ere desberdina eramaten zuten, neskek koadrozko bata eta mutilek, berriz, bata urdina.

Esan dezagun ba argazkian hain dotore dauden hauek nortzuk eta zein baserritakoak diren. Argakian goiko iladan: **Javier Kortabarría (Torrena), Juan Mari Urkia (Mendikurtza), Jose Ramon Urrutia (Urtitxi), Jose Ignacio Urkia (Mendikurtza), Faustino Lasagabaster (Artabe), Lucia Lasagabaster (Artabe), Mari Carmen Abasolo (Etxebarri), Begoña Urkia (Mendikurtza), Anabel Iturbe (Etxaluze), Belen Lasagabaster (Artabe), Dolores Lasagabaster (Iruikua), Socorro Mayo Saez (Avila).** Behean eta erdian: **Jesus Errasti (Etxesmendi), Jose Ignacio Galdos (Siondo), Julen Abasolo (Etxebarri), Pili Uribetxebarria (Sarbiarte), Itziar Errasti (Urtikua), Joseba Errasti (Urtikua), Jose Hernandez (Errotazahar), Espe Iturbe (Etxaluze), Amaia Iturbe (Etxaluze), Mila Altube (Errekabiarte), Arantxa Urkia (Mendikurtza), Charo Uribetxebarria (Sarbiarte), Maria Jesus Isasmendi (Deixatz), Bego Arenaza (Zelaikua).**

Martín
RELOJERIA - BITXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK

RKLI

Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33

Maritxu
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Tfnoa: 77 11 76

LANA

◆ Martxan dagoen negozioia jabez aldatzen da Aretxabaletan. 79 95 34 telefonora deitu. Angel.

◆ Astebukaeretan edozein lan egiteko emakumea gertu. Tel: 79 62 69. 21:00etatik aurrera.

◆ Enpresarialesen lizentziatuak klase partikularrak ematen ditu. Interesatuak deitu: 79 27 14.

◆ Emakume euskalduna behar dugu umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 77 10 62.

◆ REMeko 3. mailako giza-zientzia arloko matematikak emateko pertsona behar da. Deitu 79 71 32 telefonora.

◆ Pertsona bat, emakumea hobe, behar da ordu batzutan umeak zaintzeko. 79 67 26.

◆ Emakume euskalduna behar da ume bi zaintzeko (arratsaldeko 8etatik aurrera deitu 77 11 85 telefonora).

◆ OHOk klase partikularrak ematen dira. Deitu 79 97 08 telefonora.

◆ Kamarera euskalduna eta esperimentziaduna behar da komedorerako. Tfnoa: 79 24 58.

◆ Arrasate komunikabideak kazetaria behar du. Baldintzak: euskara ondo menperatzea, kazetaritza ezagutzea, gida baimena eta autoa. Curriculum-ak aurkezteko epea martxoak 13, ARKOk Administrazio bulegoan jasoko dira.



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.

ETXEBIZITZA

◆ Garaje bat salgai dago Murubiden. Prezio onean. Telefonoa: 79 86 12 (Arratsaldeko 7etatik aurrera).

◆ Pisu bat alokatu nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 79 47 62.

LEHIAKETAK

◆ VIII. Gerriko ikerlan sariketa. Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteak antolatuta. Informazioa: 16 02 82.

◆ Ipuin erotikoen III. lehiaketa Basauriko Euskarabila euskaldunon elkarteak antolatutako lehiaketa. Lanen luzera bi eta sei orrialde artekoa izan beharko da. Epea: apirilaren 24a. Euskarabila elkarte, 146 postakutxatila, 48970 Basauri.

◆ Bergarako XIII. literatur lehiaketa. Lanak apirilaren 22rako entregatu beharko dira Udaleko Euskera Zerbitzuan.

◆ Lasarte-Oriako XII. literatur lehiaketa. Lasarte-Oriako kultura komisioak antolatuta. 1982. urtean eta aurrekoetan jaiotako euskarazko zein gaztelerezko idazleei zuzendua. Epea: apirilak 30. Lekua: Manuel Lekuona kultur etxeko bulegoan.

DENETARIK

◆ Merkatu plazan, urre koloreko erlojua aurkitu nuen otsailaren 9an. Artiach markakoa. Tfnoa: 79 72 77 (deitu 9etatik aurrera).

BEKAK

◆ Literatur sorkuntzako beka. Beasaingo Udalak euskal kultura zabaldu eta idazle gazteen lanari laguntza emateko asmoz I. Igartza Literatur Sorkuntzako beka antolatu du. Bekak 500.000 pezetako diru laguntza izango du. Oinarriak Beasaingo udaletxeko euskara zerbitzuan eskura daitezke. Epea: ekainak 30.



Basabe Poligonoa A-15
79 34 28
ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Geure txanda



Gertu gertuan daukagu **emakumeon eguna**, eta gizartearen berdintasunera hurbiltzen bagoaz ere, oraindik asko daukagu egiteko. Hala ere, badira herrian gai honekin lotura izan duten gertaerak. Aurrekoan esaterako, txino dantzan emakumeen partaidetza ikusi genuen. Bazen garaia emakumeok horrelako ekintzetan parte hartzeko. Beste aldetik, elkarte gastronomikoetan oraindik ere gizonen partaidetza da nagusi, hala ere, aurreko batean Larrinuko San Kristobal elkartearen, emakume bat sartu zen batzordean. Herriko beste elkarte batzutan botazioa egin zen emakumeak bai ala ez, eta erantzuna: ezezkoa. Gizon hauekin...zertan ibiliko dira emakumeak gura ez izateko? Kontuak kontu, beste egun danetan moduan ondo pasatzen saiatuko gara martxoaren 8an. Herrian kalejira egin eta sagardoa dastatzeko aukera bikaina izango da. **Danok gonbidatuta zaudete!**

Gonbidatuta ala barik baina Jaiak 98koak hemen egon ziren aratuste domekan. Badirudi Tolosako ihauterrien mailara iristen ari garela, gure herrira etorri ziren kanpotarrak ikustea besterik ez dago: Don Kixote eta Santxo Panza Gaztela-Leonetik, Dragoi txinoa Txinatik, Kordobesak Cordobatik eta Zapatastak?

Handik ala hemendik baina goazen gurearekin jarraitzera. Kirola ere protagonista izango dugu datozen egunetan, bihar martxoak 6, Born-jay afizionatu mailako Arrasateko txirrindulari taldeak, partaideen aurkezpena egingo du. Bertan izango ditugu, **Josu Estevez** zuzendaria, **Eneko Garai** zuzendari mekanikoa eta **Oier Garro** txirrindularia. Zorte ona opa diegu denboraldirako! Taldean emakumerik ez dagoela jakin dut, baliteke bizikleta hartu eta datorren urtean ni neu ere taldean izatea.

Bukaerara iritsi garenez, astebukaera honetan badugu herrian ekintzarik. Zapatuan **Gaztetxeko** urteurrena ospatzeko egun osoko egitarau zabala antolatu dute: eguerdian, trikitilariak, txistorra, sagardo dastaketa eta tortila lehiaketa izango dira. Ondoren tripa ondo betetzeko bazkaria egongo da eta arratsalderako, berriz, txapelketa ugari: patxaran txapelketa, tute, mus, futbolin eta diana txapelketak. Egunarekin bukatzeko, gaueko giroa bi kontzertuk beteko dute: Oñatiko Lagash taldeak eta Mutuo Despreciok. Ba... ekintza guzti hauek aipatu ondoren, zer gehiago esan dezakegu ondo pasatzeko baino. Ondo pasa!

Liburutegiko liburu berrien zerrenda

6 urtetik aurrera

- Bota ura! (Nire terrazatik) / Juan Kruz Igerabide. Edebé 97
- Ruperren errobota / Esteban Martín. Edebé, 1997
- Paperezko gizontxoak / Fernando Alonso. Aizkorri 1997
- Haize txikiren bidaia / Concha López Narváez; Carmelo Salmerón. Aizkorri, 1997
- Euri-ttanta / Alfredo Gómez Cerdá. Bruño, 1996

8 urtetik aurrera

- Aitatxo balkoian dago / Seve Calleja. DdH, 1997
- Zer gertatzen da kuku barruan. / Josep Górriz. DdH 1997
- Luixon / Alfredo Gómez Cerdá. Bruño, 1997
- Haur korapiloak / Juan Kruz Igerabide. Pamiela, 1997
- Samovar / Maximo Gorki. Aizkorri, 1997
- Marraskilo detektibea / José Francisco Viso. Bruño, 1997

10 urtetik aurrera

- Mostaza-pila bat mesedez / Manuel L. Alonso. Edebé, 97
- Gau, gau, gau / Igerasoro. SM, 1997
- Saguarekin klik / Jon Suarez. DDH 1997

- Iratxoak / Juan Farias. Aizkorri, 1997

- Simon, Simon / Emilio Sanjuán. Bruño, 1996

12 urtetik aurrera

- Bi istorio / Xabier Mendiguren Bereziartu. Elkar, 1997
- Pirata jokoa / Seve Calleja. Elkar, 1997
- Suiziden elkarte / Robert Louis Stevenson. Elkar, 1997
- Jette / Peter Hartling. Elkar, 1997
- Din, dan, don... kanpai-lapurrak non? / Pako Aristi. Elkar, 96
- Neskatzak / Agustín Fernandez Paz. Erein, 1996

Helduentzat

- Bada hiri gorri bat / Asier Serrano. Elkar, 1997
- Telefono kaiolatua / Harkaitz Cano. Alberdania, 1997
- Kristo Ebolin geratu zen / Carlo Levi. Alberdania, 1997
- Arian ari / Patxi Zabaleta. Txalaparta, 1996
- Harreman arriskutsuak / P.A.C. de Laclos. Ibarzabal, 1997
- Ekialdeko kontakizunak / Marguerite Yourcenar. Ibaizabal

Joseba Lopez de Armentia

MARTXOA

6

egukotxa

BORN-JAY TXIRRINDULARI TALDEAREN AURKEZPENA

Arrasateko txirrindulari elkarteak Born-Jay afizionatu mailako taldearen aurkezpena egingo du. Elite nahiz 23 urte azpiko txirrindulariekin osatutako taldea. Arratsaldeko 5etan izango da Arrasateko Abaroa elkartearen. Ondoren lunch-a.



7- 8

ESKI IRTEERA

Murruko M. E.ak antolatuta **Luz Ardiden**era eski irteera. Goizeko 5etan irteera.

7

zapatua



GAZTETXEKO VII. URTEURRENA

Datorren zapatuan zazpigarren urteurrena beteko du Gaztetxeak. Hori dela eta, ekintza ugari antolatu dituzte. Goizeko 12etan **poteoa** izango da **trikitilariekin** batera eta jarraian **txistorra eta sagardoa** dastatzeko aukera izango da gaztetxean eta baita tortila lehiaketa. Ordu bietarako **bazkaria** antolatuta dago eta arratsaldean ere joku eta lehiaketak ez dira faltako. Alde batetik **etxeko patxaran lehiaketa** izango da eta baita, **mus, tute, futbolin eta diana txapelketak** ere. Gauean bi kontzertu izango dira: Oñatiko **Lagash** taldea eta **Mutuo Desprecio**. Beraz, zapatuan gaztetxera hurbilduko direnek ez dute aspertzeko aukerarik izango.

8

domeka

MENDI IRTEERA

Zaraia M.T.ak **Kapildui**-ra (Araba) irteera antolatu du. Goizeko 8etan irteera.

KALEJIRA

Martxoaren 8a ospatu asmoz, Gazte taldeak **kalejira** antolatu du. Arratsaldeko 5etan Urbaltzeko plazatik irtenda Durana kalean zehar abiatuko da. Ondoren sagardoa izango da guztientzat. Kalejirarako zarata ateratzeko tresna desberdinak ekartzeko deia luzatzen du gazte taldeak. Bukatutakoan Arrasatera joango da bertan 7,30etan hasiko den **manifestazioan** parte hartzeko.

EMAKUMEAREN EGUNA

Arrasaten ekintza bereziak. 12,30etatik arratsaldeko 3ak bitartean, lunch bertsoak, dantzariak, trikitilariak, kale antzerkia, talogileak... 7,30etan manifestazioa.

Z
I
N
E
A



ZUZENDARIA: Alejandro Amenabar.
AKTOREA: Eduardo Noriega, Penelope Cruz, Chene Lera, Fele Martinez, Najwa Nimri.

Abre los ojos

Dirutza kantitate haundi baten oinordekoa, emakumeekin arrakasta haundikoa eta zorteduna dugu César. Gau batean, bere lagun onenak, Pelayok, sofia bere laguna aurkeztu dio. César berehala maitemintzen da honetaz, eta ez du inongo erreparurik bere lagunari neskalguna kentzeko.

Baina gau horretan bertan Nuria beste lagun bat modu ia obsesibo eta gaixoberan hurbilduko zaio. Hemendik aurrerakoa amets gaizto bihurtuko da.

9-15

IKASTAROAK

GAZTE ASTEA ARRASATEN

Arrasateko gazte taldeen eskutik martxoaren 9tik 15era bitartean ekintza ugari.

Gainera egunero hitzaldiak Monterron kultur etxean arratsaldeko 7etan.

Kontzertuak: martxoaren 12an gaueko 9etan Amaia antzokian 7 eskale. Martxoaren 13an Ume gaiztuak Portun omenez. 10,30etan Gaztetxean.

15

domeka

TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON ARRASATEN

Urruñako ikastolaren alde, Arrasateko Amaia antzokian arratsaldeko 4etan eta 6etan. Sarrerak 600 pta.

Auzoetako mezak:

Martxo (domeka guztietan)

- Galartzan 11etan.
- Azatzan 12etan.
- Arkarazon ordu 1etan.

Sokorrismo ikastaroak Deba Garaiko kirol zerbitzuen eskutik. lehen laguntzei buruzko ikastaroa martxoaren 16an hasiko da eta **uretako sokorristarena** apirilaren 24an (honetarako beharrezkoa izango da aurrekoaren titulua izatea). Ikastaro bakoitzak 20.000 pta. balio du eta biak eginez gero, 30.000 pta. Izen ematea martxoaren 8a baino lehen. Argibideak 77 91 67.

ERAKUSKETAK

PINTURA ERAKUSKETA

Margo lagunak taldeak antolatu duen ikasleen margo erakusketa martxoak 7 eta 8an egongo da ikusgai euskal txokoa.

Txino dantzaren inguruko oharra

Aurreko alean Txino dantza emakumeek egiten zuten lehen aldia zela adierazi zen. Baina jakin dugunez, informazio hori okerra da, lehenago ere neskek dantzatu izan dute eta.

Ordutegia:

Eguakotxa-zapatua: 10,15
Domeka: 5etan (Umeen saioa)
7,30
10,15
Astelehena: 10,15



BEHARREZKO TELEFONOAK

Aretxabaleta

• Almen	71 49 07
• Aretxagazeta	79 01 05
• Basotxo	77 09 81
• Euskalategia	79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Hezibide Elkarte	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Kiroletxea	79 64 61
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Kurtzebarri Eskola B.H.I.	79 57 40
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Liburutegia	79 10 00
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Ludoteka	79 05 81
• Murruxio M.E.	79 93 74
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Osasun zentroa	79 74 58
• Otalora	79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Postetxea	79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Urats Gain	79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	79 53 00
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• SOS Deiak	088
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00

Z A R A I A Z I N E M A

Martxoak 6, 7, 8, 9

ABRE LOS HOJOS

Martxoak 8 (umeentzat)

EL HIJO DEL PRESIDENTE

Martxoak 13, 14, 15, 16

SE LO QUE HICISTEIS EL ULTIMO VERANO

Martxoak 15 (umeentzat)

DE JUNGLA A JUNGLA



Aiatarra da jaiotzez baina 31 urtez taxi gidaria da gure herrian. Bere berbetan, urte luze hauetan aldatuta haundia eman da taxi erabiltzaileen artean: "lehen herritarrek gehiago erabiltzen zuten taxia, gaur egun,aldiz, lantegietatik deitzen gaituzte gehienbat".

• Zer egiten du Aiatar batek Atxabaltan?

Hemengo andrea ezagutu nuen eta hona etorri nintzen bizitzera.

• Aia edo Aretxabaleta gustatzen zaizu gehiago?

Jaiotako lekua beti gustatzen da gehiago, baina hemen ere kontentu nago.

• Zenbat urtekin atera zenuen

"Lantegiendako lan egiten dugu batez ere"

gidatzeko karneta?

18 urtekin.

• Noiztik taxista?

Hasieran Zarautzen egon nintzen lau urtez, hemen 31 urte daramazkit.

• Abiadura haundian gidatzea gustatzen zaizu?

Ez, gaztetan bai, baina orain lasai ibiltzea gustatzen zait.

• Taxia asko erabiltzen da?

Lehen asko, ostegun eta ostiraletan biaje asko egiten nituen. Orain fabriketako biajeak egiten ditut. Herritarrek, bestalde, gutxi erabiltzen dute taxia, ia famili guztietan daude kotxeak eta.

• Karabanetan urduri jartzen zara?

Ez, lasai egoten naiz.

• Gaez deitzen dizute etxera telefonoz?

Bai, kasu urgentekak direnean.

• Gustoko kotxe bat?

Mercedesa gustatzen zait baina nire kotxearekin ere gustora nago, Opel Omega bat daukat.

• Gustoko duzu taxista lana?

Bai, oso lotua den arren.

• Izandako lehen kotxea?

Biug, kotxe amerikanoa.

• Zenbatean behin aldatzen duzu kotxea?

Lau urtean behin edo.

• Gaiez aldatuz, animalia bihur-

tzekotan zein animalia?

Basurdea, indartsua delako.

• Neskak makilatuta edo barik?

Pixkat makilatuta.

• Futbola ala eskupilota?

Eskupilota

• Pelotari bat?

Onak asko daude, bat esatekotan Titin.

• Afiziorik?

Ehiza, orain itxita daukadan arren.

• Fotogenikoa zara?

Normala.

• Lanbide bat?

Lanik egin gabe hobe.

• Hondartza ala mendia?

Hondartza eguzkitan egoteko baino ibiltzeko gustatzen zait, baina mendia nahiago dut.

• Irratia ala telebista?

Telebista gehiago gustatzen zait.

• Uda ala negua?

Uda nahiago dut, beroa hobeto aguantatzen dut.

• Leku polit bat?

Donostia asko gustatzen zait, parte zaharra, kontxa aldea...


• Gidarien eguna ospatzen duzu?

Bai, San Kristobal egunean Larrinuko elkartera joaten gara. Libre banago andrearekin afaria egiten dut.

KOMIKIA

EGUNEKOTUAK GAUDE JADA

Mikel Arroiabe



Kalitateak mugarik ez.



ARGI-PLASTIC

leihoen fabrikazioa P.V.C, aluminio eta poliuretano
Zigorrola, 1 8. Pabilioaia
Tel.: 77 11 30
ARRASATE

BAZKIDE TXARTELA

Aretxagazeta zure etxean jasotzeko, ordaindu beharreko urteko bazkidetza 1.500 pezetakoa da. Deitu 79 01 05 telefonora edo txartel hau bidali 151 postakutxatilara (Aretxabaleta) edo kultur etxean dagoen buzoian utzi.



IZEN-ABIZENAK:.....

HELBIDEA:.....

TELEFONOA:.....

AURREZKI KUTXA:.....

ZBA (20 digito):.....

Gogoratu auzo, baserri eta munduko edozein txokotara ere bidaltzen dugula.




Aukerako Ibilgailuren Azoka Bergaran

Asteburuan ere irekita

TWINGO Pack elektrikoa.	980.000 Pta.
ESPACE 2.2 DT. RT. 7 leku	3.650.000 Pta.
LAGUNA 2.0 RXE. Gidaria	1.850.000 Pta.

Ez diezazutela ihes egin



RENAULT
Aukera

zure kotxe berria



RENAULT

TALLERES MECA, S.A.

San Andrés Auzoa, 8. Tel.: 79 59 99 - BERGARA